



EUSKERA


# Espetxeko harrera- gida

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO





# Espetxeko harrera- gida



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2024

Lan honen bibliografia-erregistro bat Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sareko katalogoan kontsulta daiteke:  
[www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua](http://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua)

**Argitalpena:**

1.a, 2024ko martxo

**Ale kopurua:**

1.010 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

**Internet:**

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

**Argitaratzailea:**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastian, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz

**Maketazioa:**

Komunikazio Zuzendaritza.  
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako saila

**Inprimaketa:**

Gráficas Irudi, S.L.

**L.G.:**

LG G 213-2024



# Edukia

Aurkezpena .....	5
Espetxera sartzea .....	7
Kanpoko harremanak .....	9
Komunikazioak eta bisitak .....	10
Gutunak eta paketeak .....	14
Espetxeko bizimodua .....	15
Gradu-sailkapena .....	17
Eskubideak eta betebeharrak .....	18
Espetxe-tratamendua .....	22
Baimenak .....	24
Eskaerak, kexak eta errekurtsioak .....	25
Espetxe Zaintzako Epaitegia .....	26
Herri Defendatzailea edo Arartekoa .....	27
Espetxeko prestazioak eta zerbitzuak .....	28
Atzerritarra baldin bazara .....	32



# Aurkezpena



Liburuxka honetan, informazio erabilgarria eta oinarrizkoa topatuko duzu espetxeetako alderdi batzuei buruz:

- Espetxearen antolaketa.
- Noiz-nola komunika zaitezkeen familiarekin, abokatuarekin eta beste profesional batzuekin.
- Zure eskubideak eta betebeharrak.
- Espetxe barruko bizimodua eta gradu-sailkapena.
- Zer zerbitzu eta prestazio dauzkazun eskura, eta
- espetxe-sistemaren funtzionamenduaren beste alderdi batzuk, baliagarriak izan ditzakezu-eta.

Zer edo zer sakonago jakin nahi? Zalantzarik? Liburutegian dituzu Zentroko Barne Erregimeneko Araudia eta beharrezko lege-informazioa; han begiratu.

Eta espetxeko langileak ere hortxe daude, laguntzeko prest.

*Biblioteca*





# Espetxera sartzea



Espetxeratze Ataletik egingo duzu espetxera sartzea.

Eskubidea duzu **familiari eta abokatuari zure egoera jakinarazteko**, berehala, doako telefono-dei baten bidez edo beste edozein bitartekoren bidez.

1. Lehenik eta behin, zentroko langileek zure **IDENTIFIKAZIO PERTSONALA** egingo dute:

- **Nor zaren** ikusiko dute.
- **Hatz-markak jaso eta argazkia** egingo dizute.
- Zure datuak **sarreraren liburuan** jasoko dira.
- Zure **espediente pertsonala** irekiko dugu. Han jasoko dugu, zuzen eguneraturik, **zer egoeratan zauden epaibidean eta espetxe-bidean. Espetxeratu orok du eskubidea espediente horren berri izateko.**
- Zure datuak espetxe-administrazioak kudeatzen dituen fitxategi informatikoetan ere sartuko ditugu. Datu horiek zure eskura egongo dira. Uste baduzu zer edo zer zuzendu egin behar dela, Zuzendaritza Zentroan eskatu (Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila).

Transexuala baldin bazara eta espetxean non kokatuko zaitugun jakin nahi baldin baduzu, espetxeiko profesionalei jakinarazi, eta haiek esango dizute zer aukera eta eskubide dituzun.

## 2. Gero, **ARAKATU EGINO ZAITUGU: ZU ZEU ETA ZURE GAUZAK.**

Baimenduta ez dagoen zer edo zer baldin badaukazu, espetxean jasota geratuko da. Egiaztagiri bat emango dizugu, eta aske ateratzen zarenean itzuliko dizugu; edo, nahiago baduzu, senitarteko bati emango diogu; zuk esan nori.

## 3. Espetxeratze Atalean, lehenengo **OSASUN-AZTERKETA** egingo dizugu, osasunez zer moduz zauden jakiteko.

Lehen kontaktu horretan, zerbitzu medikoari jakinarazi ea gaixotasunik baduzun, edo zer sendagai ari zaren hartzen, edo osasunaren edo gaixotasunen inguruko beste edozer; funtsezkoa da; ez aukera alferrik galdu,

## 4. Espetxeko lehen egunetan, **ESPETXEKO PROFESIONAL BATZUEK ZUREKIN HITZ EGINO DUTE:**

- Elkarrizketa bat **gizarte-langile batekin** izango duzu: Hari azaldu nola geratu zaren sozialki eta familian, zure familia nola geratu den zu espetxean sartuta, eta, beharrik edukiz gero (adibidez, larri gaixotzen bazara), nori kasu egingo diogun.
- Halaber, Talde Teknikoko beste profesional batzuek ere elkarrizketatuko zaituzte - **psikologia-arlokoak, zuzenbidekoak, hezkuntzakoak edo gizarte-arlokoak** -. Haiek proposatuko dute lehen momentu horietan zer egin behar duzun, zer modulutan biziko zaren, zer okupazio izan ditzakezun...



# Kanpoko harremanak



Espetxe-legeriak aitortzen du baduzula “... **eskubidea aldian-aldian komunikazioa izateko:**

- ahoz eta idatziz,
- zeure hizkuntzan,
- senitartekoekin, adiskide eta lagunekin, eta
- espetxean laguntzeko erakunde eta instituzioetako ordezkari egiaztatuekin,... epailearen aginduz inkomunikaturik zaudenean izan ezik”

Dagokizun aginte judizialak **espetxealdi inkomunikatua** agintzen badizu, hark esandakoekin bakarrik komunika zaitezke, besterik erabakitzen duen arte.



# Komunikazioak eta bisitak

Komunikazio pertsonalak: egiten dira **lokutorioetan**, senitarteko egiaztatuekin eta adiskide eta lagun aurrez baimenduekin:

- **Iraupena:** 20 minutu, baina, asteburuetan, 40 minutuko bakar batean metatu daitezke.
- Gehienez ere, aldi berean **lau lagunekin**.

**Familiarekiko** komunikazioak, ez baldin badaukazu baimen arruntik:

- Gutxienez, hilean behin.
- Ordubate eta hiru ordu bitartean.
- Hurbileneko senitartekoekin.
- Lokal egoki batean.





Komunikazio **intimoak**, bikotearekin, ez baldin badaukazu baimen arruntik:

- Gutxienez, hilean behin.
- Ordubate eta hiru ordu bitartean.
- Gela egoki batean, intimitatea ziurtatuta dagoelarik.

**Bizikidetza-bisitak**, bikotearekin eta seme-alabekin, ez badituzte 10 urte baino gehiago:

- Lokal edo gela egoki batean.
- Gutxienez hiru hilean behin.
- Iraupena: Hiru eta sei ordu bitartean.
- Espetxeratu bakoitzak, gehienez, sei senitarteko.

Bisitan datozenek doako telefono-zenbaki bat daukate komunikazioak aurretiaz adosteko.

Komunikaziora datozenak 13 urte baino gutxiagoko adingabeak baldin badira, bizikidetza-geletan elkartu ahal izango zarete.

### **Bideo-konferentzia bidezko komunikazioak.**

Nahi baduzu, komunikazioak horrela egiteko eska dezakezu.

### **Abokatu eta prokuradoreekiko komunikazioak:**

Mintzaleku berezietan egiten dira. Administrazioak ezin du bere kasa erabaki komunikazio hauek etetea.



### **Atzerritar jatorriko espetxeratuen komunikazioak:**

- Zure herrialdeko kontsuletzeko ordezkariekin edo diplomati-koekin.
- Gela egokietan.
- Aurretiaz, espetxeko zuzendariaren baimena beharko da.

### **Telefono bidezko komunikazioak:**

Arrunki eduki ahal izango dituzu familiarekin, lege-ordezkariekin edo beste pertsona batzuekin.

### **Baldintza** hauek bete behar dira:

- Hamar zenbakitara dei egiteko baimena eska dezakezu. Espetxeko zuzendaritzan eskatu behar duzu, adieraziz nori deitzen diozun (izen-abizenak) eta harekiko ahaidetasuna edo erlazioa, eta telefonoaren titulartasuna egiaztatuz, eta, **mugikorretarako, kontratuaren kopia edo faktura aurkeztuz.**
- Deiak ZUK **ordaindu** behar dituzu.

Astean gehienez hamabost dei egin ahal izango dituzu, bakoitza zortzi minutukoa.



	Nork	Non	Denbora	Pertsonak
Senideekin, lagunekin eta hurbileko pertsonekin harremana mintzalekuetan	Onetsitako senideak eta hurbileko pertsonak	Mintzalekua	20 minutu edo 40 minutu (asteburuan pilatuta)	Gehienez 4 pertsona aldi berean
Senideekin harremana aretoetan (*)	Gertuko senideak eta ahaideak	Egokitutako aretoa edo gela	Hilean behin gutxienez. 1-3 ordu	Gehienez 4 pertsona
Harreman intimoa bikotekidearekin (*)	Bikotea	Intimitatedun gela	Hilean behin gutxienez. 1-3 ordu	2
Seme-alabekin elkarbizitzako bisitak	Bikotea eta 10 urtetik beherako seme-alabak	Egokitutako aretoa edo gela	Hilean behin gutxienez. 3-6 ordu	Gehienez 6
Abokatuarekin harremanak	Abokatuak eta prokuradoreak	Mintzaleku berezia	Epaile batek bakarrik debeka ditzake	

(\*): Ez badu baimen arruntik.

# Gutunak eta paketeak



Nahi beste **gutun** bidal ditzakezu, baldintza hauekin:

- Gutun-azalean sartu eta itxi.
- Igorle modura, zure izen-abizenak jarri.
- Espetxean horretarako dagoen lekuan utzi.
- Gutuna beste espetxe bateko beste preso bati igorri nahi badiozu, espetxeko zuzendaritzaren bidez egin behar duzu, gutun-azal itxi batean, baina zigilu beharrik gabe.

**Paketeak eta gauzak** bidaltzeko eta jasotzeko, arau hauek bete behar dira:

- Paketeak komunikazio-egunetan bidal edo jaso ditzakezu.
- Ezin duzu paketerik jaso ez postaz ez agentziaz.
- **Gauza batzuk ez daude baimenduta.** Zeintzuk? Esango dizute zure espetxean.
- Oro har, hilean **2 pakete** bidal edo jaso daitezke (produktu baimenduak bakarrik).
- Erregimen itxiko establezimendu edo departamentu batean bazaude, hilean pakete bat bakarrik bidali edo jaso ahal izango duzu.



# Espetxeko bizimodua



Espetxean **bizitzeko eta elkarbizitzeko**:

- Espetxean esango dizute **moduluko** zer **gelaxkatan** egongo zaren. **Garbiketa eta higienerako** beharrezko **produktuak** ere emango dizkizute, baita arropa eta ohe-estalkiak ere.
- Gelaxka horretan, zure gauzak zuretzako leku batean eduki ditzakezu, **zeure arropa** ere eduki dezakezu.
- Espetxe barruan, beste leku batzuk denek erabiltzeko dira: kanpoko patioak, kirol-eremuak, eskolak, liburutegia, tailerrak, jangela edo egongela. Leku horietan guztietan, espazioa beste batzuekin erabili beharko duzu.

Denak elkarrekin bizi behar duzuenez, ordutegiak programaturik daude, bai gelaxketakoak eta beste egoitzetakoak, bai jardueretakoak.

**Barruko araudian** jasoko dira ordutegiak.

# Gradu- sailkapena



Epaiaren lekukotza espetxera iritsi eta gehienez ere bi hilabetera, zigortu guztiak sailkaturik izaten dira (kausa prebentiboak dituztenak ez).

Zer esan nahi duen horrek? Legeak dio hiru gradu daudela, eta zu ere horietako batean sailkatuko zaitugu. Hari dagokion erregimenean “biziko” zara:

- Erregimen itxia (1. gradua)
- Erregimen arrunta (2. gradua)
- Erregimen irekia (3. gradua)

Nolako gradua, halako **kontrol- eta segurtasun-neurriak**. Lehen gradukoak dira zorrotzenak, eta arian-arian malgutuz doaz, hirugarrenera iritsi arte.

Zer izaten dugu kontuan gradua zehazteko? Zure izaera, espetxe-historiala, familia-historiala, soziala eta delituetakoa, zure kondenaren iraupena eta espetxe-legerian zehazten diren beste faktore batzuk.

Tratamendu Batzordeak berrikusten du gradua, gehienez ere sei hilean behin, kasuak banan bana aztertuz. Berrazterketa horretan, baliteke beste gradu batera igarotzea, edo zauden horretan bertan geratzea.

Bai hasierako sailkapenean, bai eta, gero, gradu-berrazterketa bakoitzean ere, destinoko zentro bat eskatzen da beti. Batzuetan, beste espetxe batera aldatzea ekar dezake.

Tratamendu-batzordeen proposamenak, gero, Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritza Zentroak ebazten ditu.

Ez bazaude ados espetxe-administrazioaren ebazpenekin, errekurtsioa aurkez dezakezu Espetxe Zaintzako Epaitegian.



# Eskubideak eta betebeharrak



Askatasunik gabe geratzeak eta espetxeratzeak ez dakar berekin eskubide guztiak galtzea edo etetea.

Espetxeetan, **baduzu ESKUBIDERIK:**

- Espetxeetako Administrazioak zaindu behar ditu **zure bizitza, osotasuna eta osasuna.**
- Denak elkarrekin bizi behar duzuela-eta hobe-beharrez agintzen diren neurriak bete egin behar dira, baina **duintasuna eta intimitatea** zor zaizkizu.
- **Eskubide zibil, politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalak** baliatzeko eskubidea duzu, ez baldin badira bateraezinak zure atxilotetaren arrazoiarekin edo zure kondena betetzearekin.
- Dagozkizun **laguntza publikoez** baliatzea.
- **Kanpoko harremanak**, legeek eta espetxeko antolamenduak ezarritako moduan eta baldintzetan.
- **Espetxeko jardueretan** parte hartzea.
- Espetxe-onurak.
- **Informazioa jasotzeko** eskubidea, pertsonala eta eguneratua, jakiteko zer egoeratan zauden epaibidean eta espetxe-bidean.
- Eskumena duten agintariei **eskaerak eta kexak** aurkezteko eskubidea.

- **Espetxe-tratamendu** egokia jasotzeko eskubidea.
- **Ordaindutako lana** egiteko eskubidea, betiere Administrazioak ahal duen neurrian.

Espetxeetan, **BETEBEHAR** hauek dituzu:

- **Espetxean egon behar duzu**; prebentiboa baldin bazara, agintaritzaren esanetara; eta, zigortuta bazaude, kondena betetzeko.
- **Espetxe barruko arauak** bete egin behar dituzu, aginduak obeditu, eta aitzakiarik gabe lagundu elkarbizitza zentzuzkoa izan dezagun.
- Gainerako presoak **errespetatu**, langileak ere bai, eta espetxean dagoen **oro**.
- Espetxea **garbi eduki eta ondo zaindu**.
- **Higiene pertsonala ondo** zaindu.
- Prestakuntza-, heziketa- eta lan-**jardueretan parte hartu**: espetxetik kanpora bizitzen ikasteko dira.

Horregatik guztiagatik, **administrazioak AHOLKU hauek** ematen dizkizu:

Eskubide-betebehar horiek guztiak zuzen bete daitezten:

- **Izan ezazu jokabide egokia**, eta errazago eskuratuko dituzu espetxe-onurak, baita beste tresna batzuk ere (irteteko baimenak edo irteera programatuak, adibidez), eta errazago eta erosoago joango da barruan egon beharra.
- **Zentroko arauak bete**, bestela, baliteke beste zigor batzuk ezartzea.

Ikus dezagun zer ezin den egin; bestela, zigorra izan baitezakezu:

- Espetxe barruan alkohola, droga toxikoak edo baimendu gabeko beste edozein substantzia kontsumitzea.
- Espetxe barruan dagoen beste inor gaizki tratatzea, berdin dio zer edo zer eginez, edo esanez.
- Espetxe barruan dagoen beste inor mespretxatzea beste arraza, genero edo sexu-egoera bateko delako.
- Pertsonen sexu-askatasunaren aurka egitea.



- Espetxeko segurtasunean eragina duten albiste edo datu falt-suak zabaltzea.
- Barruko araudian debekaturik dauden objektuak sartzea edo edukitzea espetxean.
- Zentroko dependenzietan edo materialetan kalteak eragitea, edo beste pertsona batzuen gauzetan, edo gauza horiek ostea.
- Espetxeko agintariek edo langileek emandako aginduak ez betetzea.
- Espetxeko langileei edo beste pertsona batzuei zor zaien errespeturik eta begirunerik ez izatea.
- Ihes egiten saiatzea edo ihes egitea, edo beste preso batzuei ihes egiten laguntzea edo aukera errazta.
- Beste norbait mehatxatzea edo larriki hertsatzea (edonor delarik ere).
- Iskanbila bortitzak abiaraztea edo antolatzea, edo halakoetan parte hartzea.

Falta bat egiten denean, ZIGOR hauetako bat ezar daiteke:

- Ohartarazpena:
- Paseoak eta jolas-ekintzak debekatzea: gehienez ere hilabetez.
- Ahozko komunikazioak ahalik eta gehien murriztea.
- Irteteko baimenak kentzea: gehienez ere bi hilabetez.
- Gelaxkan isolatzea: gehienez ere zazpi asteburu.
- Gelaxkan isolatzea: gehienez ere hamalau egun.

Administrazioak, zigorra jarri nahi badu, **idatzizko PROZEDURA** bat bete behar du. Ikus dezagun:

- Zigor-espeditentea irekitzen zaizunean, **idatziz** jakinaraziko zaizu, zergatik ireki zaizun azalduz (zer egin duzun).
- Nahi baduzu, **espeditentean parte har** dezakezu, eta zure alde azaltzen duzuna ere han jasota geratuko da. Egozten zaizkizun gertakarien edukiari buruzko zalantzarik baduzu, galdetu zentroko profesionaleri (hezitzaileak, legelariak...).
- Edonola ere, zigorra, jartzekotan, kide anitzeko organo batek jarriko dizu: Diziiplina Batzordeak; harena da ardura hori.
- Zigorra ezartzen bazaizu, **idatziz jakinaraziko zaizu**. Idazkian, aukeran dituzun errekurtsoen berri ere emango zaizu: zer errekurtso, zer epetan, eta nola.
- Ezarritako zigorraren aurka, **Espetxe Zaintzako epailearengana** jo ahal izango du.

Baina, jokabide ona baldin baduzu eta jardueretan ondo parte hartzen baduzu, Diziiplina Batzorde horrek berak sariak ere eman diezazkizuke; esate baterako, aparteko komunikazio gehiago, ikasketa-bekak, diru-sariak, etab.



# Espetxe- tratamendua



Atxilotu zaituztelako edo kondena bat bete behar duzulako zaude, denbora baterako, espetxean. Denbora-tarte horrek, edonola ere, askatasunean bizitzeko prestatzeko balio behar du.

Espetxeko langileak saiatuko dira jakiten, zurekin lan eginez, ea zer arazo duzun, nola zauden sozialki, lan-arloan eta familia aldetik, eta ahaleginak egingo dituzte espetxera ekarri zaituen motiboa desagertu dadin, edo leundu, baina zu ados bazaude, hori beti.

**Tratamendu Batzordea** zentroko profesionalek osatzen dute. Besteak beste, zeregin hauek betetzen ditu:

- Hark aztertzen ditu zure arazo eta premia pertsonal eta sozial guztiak.
- Espetxean duzun bizimoduaren jarraipena egiten du.
- Hark egiten du hasierako sailkapen-proposamena, baita zure graduaren berrikuspenera ere.
- **Jarduera-plan** bat proposatzen dizu, espetxean zer jarduera egin ditzakezun, lagungarriak izango zaizkizula-eta.
- Hark aztertzen eta onartzen edo ukatzen ditu zure baimen-eskaerak.
- Hark proposatzen du norbaiti espetxe-onurak ematea, egokia iruditzen bazaio.


Jokabideak zuzentzeko, trebetasunak hobetzeko edo espetxera eraman zaituzten gabeziak gainditzeko, Tratamendu Batzordeak esku-hartze/tratamendu-programetan parte hartzea proposatuko dizu, baita zure hezkuntza- edo lan-kualifikazioa hobetzea ere.





Espetxeratu askok arazo edo zailtasun pertsonalak dituzte. Arazo-zailtasun horiek gainditzen laguntzeko, **TRATAMENDU-PROGRAMA ESPEZIFIKOAK** diseinatu dira.

Jakin nahi baduzu zure espetxean zeintzuk eskaintzen diren, nolakoak diren, eta haietara nola irits zaitzkeen, zure hezitzaileari galdetu eta hark esango dizu. Zure espetxean ez badago zure gustukorik, baina beste batean bai, hara alda zaitzaten eska dezakezu. Hori bai, zure eskaera aztertu ahal izateko, programa hori onartzeko konpromiso irmoa aurkeztu behar duzu; kontuan hartu.



Beste jarduera batzuetan **kirola, kultura, aisia eta lana** eskainiko zaizkizu, Haietan ere parte har dezakezu, ezarritako ordutegian eta lekuetan.

# Baimenak



Lehen graduan ez bazaude, eta kondenauren laurdena beteta baldin badaukazu eta jokabide ona izan baldin baduzu, irteteko **baimen arruntak** izan ditzakezu, baina aurretiaz espetxeke lan-talde teknikoak **aldeko txostena** egin beharko du.

Baimen horiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Baimen bakoitzak gehienez ere zazpi egun iraungo du.
- Urtean zehar bat baino gehiago izan dezakezu:
- Bigarren graduan baldin bazaude, urtean gehienez ere **36 egun**.
- Hirugarren graduan baldin bazaude, urtean gehienez ere **berrogeita zortzi egun**.

**Baimen bereziak** ere eduki ditzakezu. Legedian zehazturik dago noiz eta nola (zuzeneko senitartekoen heriotza edo gaixotasun larria, bikotekidearen erditzea edo beste arrazoi garrantzitsu eta egiaztatu batzuk, espetxetik kanpoko kontsulta anbulatorioa, ospitaleratzeak). Segurtasun-neurri egokiak bete beharko dituzu, arrazoi bereziren batengatik ezinezkoa ez bada behintzat.

# Eskaerak, kexak eta errekurtsoak



Nahi dituzun **kexak eta eskaerak** egin ditzakezu, **ahoz edo idatziz** (idatziz bada, gutun-azal itxi batean aurkez ditzakezu, eta aurkezte-ziurtagiri bat eman behar dizute).

- Nori aurkeztu?
- Zentroko funtzionarioei.
- Zentroko Zuzendaritzari.
- Zuzendaritza Zentroari (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila) edo Zaintza Epaitegiari.

Halakoetan, idazkia espetxeko zuzendaritzari aurkeztu beharko dituzu, eta hark eramango du dagokion lekura.

- Eta arrazoi hauetakoren batengatik bazaude kezkatuta:
- Zure espetxe-egoera.
- Espetxe barruko bizimodua.
- Jarduerak...

**errekurtsoak** ere aurkez ditzakezu, idatziz. Administrazio-ebazpen bakoitzean jakinaraziko zaizu zer errekurtso, legean zehazturik baitago.

Zure eskaria, kexa edo errekurtsoa aztertu ondoren hartzen den erabakia **idatziz jakinaraziko zaizu**.

# Espetxe Zaintzako Epaitegia



Haren ardura da **begira** egotea ea nola betetzen den zure kondena, zure eskubideak zaintzea, eta, behar izanez gero, espetxe-administrazioaren lana artezteka edo zuzentzea.

Ikus ditzagun haren funtzioetako batzuk:

- Errekurtsorik aurkezten baduzu hasierako sailkapenaz, gradu-aurrerabideaz edo -atzerabideaz, hark ebatziko du.
- Bi egun baino gehiagorako irteera-baimenak baimentzea (3. graduakoz izan ezik).
- Diziplina-zigorren inguruko erreklamazioak errekurtsio bidez ebatzea.
- Baldintzapeko askatasuna ematea eta kentzea.
- Zure funtsezko eskubideak edo espetxeko eskubideak edo onurak direla-eta erregimenari edo tratamenduari buruzko eskari edo kexarik giten baduzu, hark ebatziko du.

Zaintzako epailea sarri joaten da espetxeetara. Harentzat ez da zaila, beraz, presoekin zuzenean komunikatzea. Edonola ere, beti jo dezakezu harengana idatziz.

# Herri Defendatzailea edo Arartekoa



Erakunde hori 1978ko Espainiako Konstituzioak ezarri zuen, oinarrizko eskubideak defendatzeko. Hortaz, Administrazioaren jardura gainbegira dezake, eta Gorte Nagusiei haren berri eman.

Uste baduzu espetxean zauden bitartean zure eskubide edo interes zilegiak kaltetuak gertatu direla (ez kondenagatik beragatik, beste zerbaitegatik baizik), erakunde horretara jo dezakezu eta zer gertatu zaizun azaldu, baina beti idatziz.

Gainera, Euskadin Arartekoaren figura dago, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen jardura eta politika publikoetan pertsonen eskubideak defendatzeko Eusko Legebiltzarreko goi-komisarioa. Arartekoaren zeregin nagusia herritarrei arreta ematea da, Administrazioaren jardura oker edo irregularrei buruz planteatzen dituzten kexa, eskari edo kontsultei dagokienez, eta kexa horiek prozedurabaten arabera izapidetzea, non eragindako administrazioari bere jokabideari buruzko azalpena eta informazioa eskatzen zaion.

Kexak bi erakundeei aurkez diezazkieke, bata zein bestea.

# Espetxeko prestazioak eta zerbitzuak



Zure beharrei erantzun nahian, eta aske bizitzera itzuli ahal izan zaitezen, espetxeak prestazio eta zerbitzu batzuk ematen dizkizu.

Espetxean bada **ekonomatu** bat. Ezer behar baduzu, eta baimenduta badago, han eros dezakezu.

Produktuen eta prezioen zerrenda bulegoko leihatilaren ondoan dago. Eguneratuta egoten da.

**Ekonomatuan ez dagoen zer edo zer** behar baduzu -eta baimenduta baldin badago-, zentroko zuzendaritzari eskatu ahal izango diozu, eta hark kanpoan erosteko baimena eman ahal izango dizu. Produktuaren kostua zuk ordaindu beharko duzu.

Legezko dirua ezin da erabili.

Espetxera iristen zarenean aldean daramazun dirua eta gero leihatilatik edo igorpen bidez iristen zaizuna Administrazioan jasota geratuko da. Horixe da zure **pekulio-kontua**. Emango dizugu mugimenduen eta saldoaren informazioa, agiri bidez.

Diru hori erabiltzeko eta, hartara, zure erosketak egiteko, txartel magnetiko indibidual bat emango dizugu, aste bakoitzeko kopuru mugatu batekin.

Aurretiaz administratzaileak baimena ematen badu, transferentziak eta igorpenak ere egin ditzakezu familia edo beste pertsona batzuentzat.

**Ikuztegi eta ile-apaindegia** ere badaude. Doan erabil ditzakezu.

Zentroan bada **osasun-zerbitzu** bat. Hango langileak medikuak, erizainak eta laguntzaileak dira. Nahi duzunean joan zaitezke kontsultara, baina eskatu egin behar duzu. Zerbitzu horrek arreta integrala ematen du, gaixotasunak prebenitzeko, diagnostikatzeko eta tratatzeko. Behar izanez gero, zentroko zerbitzu medikoak espezialistarengana edo osasun-zentro espezializatura bidali ahal izango zaitu. Osasun-mediku partikular batekin nahi baduzu kontsulta egin, espetxeke Zuzendaritzari eskatu beharko diozu. Baimena emanez gero, gastuak zuk ordaindu beharko dituzu.





Denon hobe beharrez -elkarrekin bizi behar baituzue-, beharrezkoa da espetxeeko osasun- eta higiene-arauak betetzea.

Espetxeratu izanak bestelako arazorik eragiten badizu zuri edo zure familiari, gizarte-arloko langileek lagunduko dizute.

Zure udalak edo autonomia-erkidegoak laguntza ekonomiko, sanitario edo bestelakorik eskaintzen badizu, langile horiek erakutsiko dizute nola eskatu.

Ez badaukazu Nortasun Agiri Nazionalik edo Gizarte Segurantzako txartelik, esaiezu profesional horiei. Eskatzen lagunduko dizute.

Beste gauza bat: **AUKERAK, GIZARTERATZEAREN EUSKAL AGENTZIA** ere hortxe dago. Hark kudeatzen du presoek zer lan egiten duten espetxeetako produkzio-tailerretan, bai eta lanbide-prestakuntzako eta lanean hasteko ekintzak ere (lanean trebatzeko balio dute, eta lan-merkatuan sartzeko aukera gehiago edukitzeko).

Administrazioak ahal duen neurrian, lan egiteko eskubidea eta betebeharra daukazu. Lanak zeregin jarraitu bat eskainiko dizu, zure egoera profesionala hobetzeko aukera, eta lan-merkatura itzultzeko prestatuko zaitu.

Espetxeeko lan produktiboa ordaindu egiten da.





**HEZKUNTZA-ZERBITZUEK** oinarrizko hezkuntzara iristeko bidea emango dizute, helduen prestakuntza-ikastaroren batera joanez; edo kalean amaitu ez zenituen ikasketak amaitzen lagunduko dizute.

Urruneko ikasketak egiteko ere balia dezakezu zure egoera, adibidez Bigarren Hezkuntza; edo Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren bidez ematen den unibertsitate-titulazioen bat.

Espetxeak jarriko ditu jarri beharreko baliabideak zuk zure **ERLIJIO-ASKATASUNA** bermaturik izan dezazun, eta zure konfesioari dagokion ministerioan dihardutenekin komunika zaitezten, betiere ministerio hori behar bezala erregistratuta badago.



# Atzerritarra baldin bazara



Espainiako espetxe batera sartzen dituzten atzerritarrek **eskubidea dute beren herrialdeak Espainian duen ordezkartzarekin komunikatzeko**, baina zentroko Zuzendaritzari eskatu behar diote.

Ez baduzu egiaztatu nor den zure ordezkaria, edo errefuxiatua edo aberrigabea bazara, zure interesak babesten dituen herrialdeko ordezkartzarekin komunikatu ahal izango zara, edo dena delako agintari nazional edo nazioartekoarekin.

Jada kondenatuta bazaude baina beste herrialde batekoa bazara, **kondena han betetzeko** eska dezakezu, baldin eta zure herrialdeak horretarako itunik sinatu badu Espainiarekin. Hezitzaileari galdetu ea zure herrialdea aukera hori adostua dutenen artean dagoen.

Edozein unetan eska dezakezu horretarako izapideak hasteko. Hori nahi baduzu, eskatu lehenbailehen. Zentroko zerbitzu juridikoak hortxe dituzu, haiek aholkatuko dizute nola egin, eta dokumentazioa prestatzen ere lagunduko dizute.

**Baldintzapeko askatasuna** lortzeko baldintzak betetzen dituzunean -Zigor Kodean datoz-, Espetxe Zaintzako Epaitegiak baimena eman ahal izango dizu baldintzapeko askatasun hori **zure herrialdean bete dezazun**.

Zuk ordaindu ezin baduzu, Administrazioak lagunduko dizu zure herrialdera itzultzzen, han bete dezazun zigorra. Epaitegiak baimena eman ondoren ez baldin bazara zure herrialdera itzultzzen, galdu egingo duzu baldintzapeko askatasuna.



# I ERANSKINA

## ESPETXEAK



### ARABAKO ESPETXEA

**Arabako espetxeko helbidea:**

San Migel Atea, 1- PK  
01230 Langraiz Oka

**Arabako espetxeko kontu-zenbakia:**

ES67 0049 5468 44 2116969970

**Espetxean diharduten erakundeen zerrenda:**

ADAP- ADSIS- ARABAKO- BERTSOZALE ELKARTEA- ARRATS- BERRIZ-  
TU- BIDESARI- CLARA CAMPOAMOR- EUSKADIKO GURUTZE GORRIA- EL  
PRADO- ETORKINTZA- FEDEAFES -GAO LACHO DROM- GIZAKIA- GOIZTIRI  
- HUNKITU- JEIKI- LOIOLAETXEA- GASTEIZKO ESPETXEETAKO PASTORALA-  
SAMSARA- SIDALAVA- ZUBIKO

**Komunikazioetarako hitzordua eskatzeko:**

**Web honetatik**

<https://citaprevia.institucionpenitenciaria.es/cita-previa-publico/>

**Espetxeko telefonoa**

945 318 600 (astelehenetik asteazkenera)

# I ERANSKINA

## ESPETXEAK



### BIZKAIKO ESPETXEA

**Bizkaiko espetxeoko helbidea:**

Agirre Lehendakaria kalea 92  
48970 Basauri, Bizkaia

**Bizkaiko espetxeoko kontu-zenbakia:**

ES77 0049 4638 87 2716160141

**Bizkaiko espetxean diharduten erakundeen zerrenda:**

ADSIS- ALKOHOLIKO ANONIMOAK- BERRIZTU- BIDESARI - EUSKADIKO GURUTZE GORRIA - ERAIN - ETORKINTZA- GIZAKIA FUNDAZIOA - BILBOKO ESPETXEETAKO PASTORALA - ZUBIETXE - ZUBIKO- ZUBIA

**Espetxeratuekin komunikatzeko hitzordua eskatzeko:**

**Web honetatik**

<https://citaprevia.institucionpenitenciaria.es/cita-previa-publico/>

**Aurrez aurre eta telefono bidez:**

94 4 490 654 (astelehenetik asteazkenera, 07:00etatik 20:30era)

# I ERANSKINA

## ESPETXEAK



### GIPUZKOAKO ESPETXEA

**Gipuzkoako espetxeko helbidea:**

Martutene pasealekua, 1  
20014 Donostia-San Sebastián

**Gipuzkoako espetxeko kontu-zenbakia:**

ES12 00 4960 8522 2716061785

**Gipuzkoako espetxean diharduten erakundeen zerrenda:**

ARRATS- BERRIZTU- GURUTZE GORRIA EUSKADI- GURE AMETS -  
KRISTOREN GORPUTZA ELIZA EBANJELIKOA - IRESGI- IZAN - PROYECTO  
HOMBRE- LOIOLAETXEA - GIPUZKOAKO ESPETXEETAKO PASTORALA

**Espetxeratuekin komunikatzeko hitzordua eskatzeko:**

**Web honetatik:**

<https://citaprevia.institucionpenitenciaria.es/cita-previa-publico/>

**Espetxeko telefonoa:**

943 450 107 (astelehenetik asteazkenera)